


Euskal Autonomia Erkidegoko eraikuntzaren kostuak %0,5 igo dira 2006ko apirilean

Azken hamabi hilabeteetan (2005eko apiriletik 2006ko apirilera) eraikuntzaren kostuak %3,2 igo dira.

EAEEn eraikuntzako kostuen indizeak %0,5eko igoera izan du 2006ko apirilean, aurreko hilabetearen aldean; horrela, hilabete horretako urte arteko tasa %3,2ra igo da, EUSTATEN datuen arabera. Aurreko urteko abenduaren aldean, %3,4 igo da.

Urte arteko aldakuntza-tasak, 1997-2006



(*)Gehikuntza apirilakoko urte artekoa da

Iturria: EUSTAT

2006ko apirilean lanekuaren kostuak ez du inolako aldaketarik izan (%0,0), aitzitik lehengaien kostuek %0,7ko igoera izan dute.

Eraikuntzaren eta Obra Zibilaren azpisektoreek antzeko bilakaera izan dute: eraikuntzak %0,7ko igoera izan du aurreko hilabetearen aldean, eta Obra Zibileraiko lehengaien kostuek %0,6koa. Bi azpisektore horien urte arteko bilakaeran argi ikusten da antzeko ibilbideak izan dituztela: eraikuntzako lehengaien kostuak %2,9 gehitu dira, eta obra zibilekoak %2,8.

Apirilean, prezioen hazkunde handienak, besteak beste, ondoko hauetan kontsumitutako lehengaietan eman da: *lehergailu eta gasak* (%5,7), *petrolioaren eratorriak* (%4,9), *asfaltozko produktuak* (%4,9), *burdina eta altzairua* (%2,6), *burdindegiko gaiak* (%1,6) eta *beirak* (%1,4). Ondoko hauetako lehengaien prezioak, berriz, gutxitu egin dira, besteak beste: *energia elektrikoa* (%-1,7), *egiturak eta galdaragintza* (%-0,8), *metalezko tutueriak* (%-0,3) eta *erauzketa-agregakinak* (%-0,1).

Sektorean kontsumitu diren lehengaien prezioari dagokionez, azken hamabi hilabeteetan inflazio-tasa handienak izan zituztenak ondokoak izan ziren: *asfaltozko produktuak* (%23,4), *petrolioaren eratorriak* (%20,0), *energia elektrikoa* (%15,6), *beira* (%7,3) eta *burdina eta altzairua* (%5,0). Bestalde, ondoko hauen lehengaien urte arteko prezioak (2005eko apiriletik 2006ko apirilera) murriztu egin dira: *metalezko tutueriak* (%-7,1), *karea, igeltsua eta eskaiola* (%-1,9) eta *zeramika-produktuak* (%-0,1).

ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. EUSKAL AE / DATU AURRERAPENA				2006KO APIRILA
GOIBURUAK	INDIZEA Oin., 2000= 100	GEHIKUNTZAREN %		
		Aurreko hilaren aldean	Aurreko urteko hil beraren aldean	Aurreko abenduaren aldean
KOSTUA GUZTIRA	123,4	0,5	3,2	3,4
ERAIKINAK	123,3	0,5	3,2	3,4
OBRA ZIBILA	123,6	0,4	3,2	3,3
LEHENGAIEN KOSTUA	120,0	0,7	2,9	3,1
ERAIKINAK	120,2	0,7	2,9	3,2
OBRA ZIBILA	119,6	0,6	2,8	2,8
LAN-ESKUAREN KOSTUA	131,1	0,0	4,0	4,0

Iturria: EUSTAT

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Tel:+34-945-01 75 00 Faxa:+34-945-01 75 01 Posta elek.: eustat@eustat.es

Harremanetarako pertsona: Gerardo Pérez Aja

Tel:+34-945-01 75 06 Faxa:+34-945-01 75 01

Prentsa-oharrak Interneten: www.eustat.es

Datu-bankua: <http://www.eustat.es/bancopx/euskara/indice.asp>